



KONTATU GUREKIN!

X- IPUINEN AHOZKO NARRAZIO LEIHAKETA

(AHOZ AHO 2022)

AURKEZPENA:

Ahozko Narrazioaren Lehiaketa AHOZ-AHO Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren barruan kokatuko da, narrazioaren artea sustatu eta zabaltzea helburu hartuta.

OINARRIAK:

1-IZEN-EMATEA

Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea 2022ko OTSAILAREN 25a baino lehen egin beharko da.

1.1- Parte-hartzaile bakoitzak e-mail bat bidali beharko du intujai@gmail.com helbidera, "IPUIN LEHIAKETA" goiburuarekin.

1.2- Izen-ematea osatzeko ondoko datuak eman beharko dira:

- Parte-hartzailearen izen-abizenak.
- Kontatuko den ipuinaren izenburua.
- Ipuinaren egilea.
- Posta elektronikoa eta telefonoa.

1.3- Izen-ematea gauzatzeko parte hartzaile bakoitzak 20€ ordaindu beharko ditu seinale gisa, eta diru hori partaidetza amaitutakoan itzuliko da.

2-ARAUAK

2.1- Profesionalek zein ez-profesionalek parte hartu ahal izango dute.

2.2- Ipuinak 8 minutu iraungo du gehienez eta euskeraz narratuko da.

2.3- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ipuin bat aurkeztu ahal izango du.

2.4- Lehiaketak bi fase izango ditu:

Lehiaketako SAILKAPEN GALA martxoaren 05an izango da, larunbata, 19:00ean, ORDIZIAKO D'ELIKATUZ GUNEAN, eta saio horretan HIRU FINALISTAK hautatuko dira.

Lehiaketako FINALA martxoaren 24an, osteguna, izango da, 19:00etan, ORDIZIAKO BARRENA JAUREGIAN.
Han, HIRU FINALISTEK 2022ko AHOZ AHO NARRAZIOAREN GALA HANDIAN parte hartuko dute.

2.5- SAILKAPEN GALAN lehiaketako partaide guztiek parte hartuko dute, zozketaz ezarriko den hurrenkeran.

2.6- SAILKAPEN GALAN hautatuko dira FINALERA iritsiko diren HIRU FINALISTAK:

EPAIMAHAIK BI FINALISTA hautatuko ditu, eta beste bat PUBLIKOAREN BOTOAREN bidez aukeratuko da.

2.7- FINALEAN, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA eta PUBLIKOAREN BOTOA batuta erabakiko da IRABAZLEA zein den, baita BIGARREN eta HIRUGARREN sailkatuak ere.

2.8- EPAIMAHAIAREN erabakia eta PUBLIKOAREN BOTOA apelaezinak izango dira.

3-SARIAK.

LEHENENGO SARIA: 300€

BIGARREN SARIA: 200€

HIRUGARREN SARIA: 100€

Lehiaketa honetan parte hartzeak **beraren oinarri guztiak onartzen direla esan nahi du**, baita oinarri horietan jasotzen ez den aurreikusitako gabeko edozein gertakariri buruz ANTOLAKUNTZAK hartzen dituen erabakiak ere.

Parte-hartzaileek OINARRIAK errespetatzeko **konpromisoa hartzen dute**.

Ordizian, 2022ko URTARRILAREN 17an.

INFO GEHIAGO:

Tlf: 678990162

E-mail: intujai@gmail.com

